BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

3461

EBAZPENA, 2015eko uztailaren 27koa, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearena, goi mailako kirol-lehiaketak antolatzeko diru-laguntzen eskaeren gaineko ebazpen-proposamen bat eman eta organo honi aurkeztuko dion Balorazio Batzordeko batzordekideak izendatzen dituena, eta batzorde horren osaeraren berri ematen duena.

Aztertuta geratu da goi mailako kirol-lehiaketak antolatzeko diru-laguntzen deialdia arautzen duen 2015eko uztailaren 14ko Agindua, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena.

Kontuan izanda aipatuta aginduaren 10. artikuluak, alde batetik, aurkezten diren eskabideak aztertzeko eta organo honi aurkeztuko dion ebazpen-proposamen arrazoitu bat emateko Balorazio Batzorde bat osatuko dela adierazten duela; eta bestetik, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordeak Gazteria eta Kirol Zuzendaritzako bi teknikari izendatuko dituela batzordekide gisa eta aipatutako Batzordearen osaera argitara eman behar dela esaten duela.

Horiek horrela, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Balorazio Batzordeko kideak izendatzea eta batzorde horren osaeraren berri ematea. Batzordeak honako kide hauek izango ditu:

Batzordeburua: Jon Redondo Lertxundi (Gazteria eta Kiroletako zuzendaria).

Batzordekideak:

● Elisabet Altube Bengoa (Gazteria eta Kirol Zuzendaritzako arduradun teknikoa).

● Carolina Muro Arroyo (Gazteria eta Kirol Zuzendaritzako teknikaria), batzordean idazkari jardungo duena.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea, jendeak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko uztailaren 27a.

Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea,
JOSE ANGEL MARIA MUÑOZ OTAEGI.